Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

ETORKIZUNA ORAIN

TXINGUDIKO ZERBITZUAK
SERVICIOS DE TXINGUDI

Donostia, 2020ko irailaren 17a
San Sebastián, a 17 de septiembre 2020

**ELKARTU DIRA**

Alde batetik, **JOSÉ IGNACIO ASENSIO BAZTERRA** Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko foru diputatua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaritzan, egintza honetarako berariaz baimendua Diputatuen Kontseiluaren 2020ko irailaren 8ko erabakiaz.

Bestaldetik, **JOSE ANTONIO SANTANO CLAVERO jauna eta TXOMIN SAGARZAZU ANCISAR jauna,** Servicios de Txingudi – Txingudiko Zerbitzuak, SAko Administrazio Batzordeko Lehendakaria eta Lehendakariordea hurrenez hurren, Administrazio Kontseiluak 2020ko ekainaren 12an egindako bileran hartutako erabakiaren bidez egintza honetarako berariaz baimenduak.

Bi aldeek lankidetza hitzarmen hau sinatzeko lege gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri; horrenbestez,

**ADIERAZTEN DUTE**

**LEHENENGO.-** Euskal Autonomia Estatutuaren 10. artikuluko 11. eta 33. idatz-zatien arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, bere lurralde eremuaren barruan, aprobetxamendu hidraulikoen gaineko eskumen esklusiboa, baldin eta ibaiek ibilbide osoa Euskal Autonomia Erkidego barruan egiten badute, bai eta Estatuak legez interes orokorrekotzat jo ez dituen eta beste autonomia erkidego batzuei eragiten ez dieten obra publikoen gainekoak ere.

Uztailaren 12ko 297/1994 Dekretuaren bidez - Estatu Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari baliabide eta ustiakuntza hidraulikoen arloko funtzioak eskualdatzeari buruzko Eskualdatzeen Batzorde Mistoaren Erabakia onartu zuena - Estatuari zegozkion funtzioak eta bitartekoak EAEra eskualdatu ziren, besteak beste, toki-korporazioei laguntza ematekoa Autonomia Erkidegoaren lurraldean

**REUNIDOS**

De una parte, **D. JOSÉ IGNACIO ASENSIO BAZTERRA**, diputado foral del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, en representación de la Diputación Foral de Gipuzkoa, autorizado expresamente para este acto por acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno Foral en sesión celebrada el 8 de septiembre de 2020.

De otra parte, los Sres. **D. JOSÉ ANTONIO SANTANO CLAVERO** y **D. TXOMIN SAGARZAZU ANCISAR**, Presidente y Vicepresidente del Consejo de Administración de Servicios de Txingudi – Txingudiko Zerbitzuak, S.A. respectivamente, autorizados expresamente para este acto por acuerdo adoptado por el Consejo de Administración en sesión celebrada el 12 de junio de 2020.

Los intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente Convenio de colaboración y a tal efecto

**EXPONEN**

**PRIMERO.-** Que, conforme al artículo 10, párrafos 11 y 33, del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, corresponde a la Comunidad Autónoma, dentro de su territorio, la competencia exclusiva en aprovechamientos hidráulicos, cuando las aguas discurran íntegramente dentro del País Vasco, así como en obras públicas que no tengan la calificación legal de interés general del Estado o cuya realización no afecte a otras Comunidades Autónomas.

Por Decreto 297/1994, de 12 de julio, por el que se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias sobre traspaso de funciones de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de recursos y aprovechamientos hidráulicos, se han transferido las funciones y medios correspondientes, entre otros, al otorgamiento de auxilios a corporaciones locales para la

egiten diren obra hidraulikoak gauzatzeko, betiere, jarduketa horiek EAEko Administrazioak interesgarri jotzen dituenean, horiek egiteak beste autonomia erkidego bati eragiten ez dionean eta legez Estatuaren interes orokorrekotzat jotzen ez direnean.

ejecución de obras hidráulicas que se realicen en el territorio de la Comunidad Autónoma, cuando tales actuaciones sean de su interés, su realización no afecte a otra Comunidad Autónoma y no tengan la calificación legal de interés general del Estado.

**BIGARREN.-** Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko uztailaren 19ko 22/2016 Foru Dekretuak onartzen du, besteak beste, ezen, obra hidraulikoen arloan, eginkizunak eta eskumenak 27/1983 Legeak, azaroaren 25ekoak, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen Arteko Harremanei buruzkoak, 7. artikuluko a) 10 eta b) 4. apartatuetan zehaztutakoak eta ekainaren 23ko Uraren 1/2006 Legetik eratorritakoa direla; hau da, azpiegitura hidraulikoei buruzko obra publikoak eta ur publiko kontinentalen eta horien ibilgu naturalen, erriberen eta zorguneen polizia. Horrekin batera, diputazioek udal izaerako edo udalaz gaindiko zerbitzu publikoei dagokienez duten zereginaren ondoriozkoak ur horniduraren eta saneamenduaren arloan, uholdeak prebenitzeko obretan eta hiri hondakinetan.

**SEGUNDO.-** Que el Decreto Foral 22/2016, de 19 de julio, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, reconoce, entre otras, que en materia de obras hidráulicas, las funciones y competencias son las que resultan de los apartados a) 10 y b) 4 del artículo 7 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, y las derivadas de la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas del País Vasco, esto es: obras públicas relativas a infraestructuras hidráulicas y policía de aguas públicas continentales y de sus cauces naturales, riberas y servidumbres. Todo ello junto con las que derivan del papel de las diputaciones respecto de los servicios públicos de carácter municipal o supramunicipal en materia de abastecimiento y saneamiento de aguas, obras de prevención de inundaciones y residuos urbanos.

Zehazki, bere bederatzigarren artikuluak aldez aurreko azterlanak, aurreproiektuak eta proiektuak idaztea edo zuzentzea lurraldeko ur hornidurako eta saneamenduko azpiegiturak egiteko eta hobetzeko, eta Gipuzkoako ibaietako uholdeen aurkako defentsarekin, emarien kontrolarekin eta berreskuratze morfologikoarekin zerikusia duten eraguztietako obrak egiteko eskumentzen du Obra Hidraulikoetako zerbitzua.

En concreto, su artículo noveno atribuye al Servicio de Obras Hidráulicas la potestad para redactar o dirigir estudios previos, anteproyectos y proyectos para la construcción o mejora de las infraestructuras de abastecimiento y saneamiento del territorio, así como los relativos a toda clase de obras fluviales relacionadas con la defensa contra inundaciones, control de caudales y restauración morfológica de los ríos guipuzcoanos.

**HIRUGARREN.-** Servicios de Txingudi-Txingudiko Zerbitzuak, SA tokiko merkataritza elkartea da Mancomunidad de Servicios de Txingudi – Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatearen jabetzakoa oso-osorik, eta haren bidez gauzatzen eta ematen ditu zuzenean uraren ziklo integrala (hornidura eta saneamendua) bezalako bere eskumeneko zerbitzuak, mankomunitatearen beraren lurralde esparruan, indarrean dituen Estatutuen 5. eta 23. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

**TERCERO.-** Que Servicios de Txingudi-Txingudiko Zerbitzuak, S.A. es la sociedad mercantil local íntegramente propiedad de la Mancomunidad de Servicios de Txingudi – Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatea y a través de la cual materializa y presta de forma directa los servicios de su competencia como el ciclo integral del agua (abastecimiento y saneamiento), en el ámbito territorial de la propia mancomunidad, de conformidad a lo dispuesto en los artículos 5 y 23 de sus vigentes Estatutos.

**LAUGARREN.-** Uraren Euskal Agentziak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Ur

**CUARTO.-** Que, la Agencia Vasca del Agua, la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Consorcio de

Kontsortzioak, Añarbeko Uren Mankomunitateak eta Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateak esparru akordioaren proposamen bat dute 2018-2027 aldian Gipuzkoako Lurralde Historikoan saneamendu azpiegiturak eraikitzeko.

Aguas de Gipuzkoa, la Mancomunidad de Aguas del Añarbe y la Mancomunidad de Servicios de Txingudi disponen de una propuesta de acuerdo marco para la construcción de infraestructuras de saneamiento en el Territorio Histórico de Gipuzkoa en el período 2018-2027.

**BOSGARREN.-** Aipatutako esparru akordioan berrikusi eta bildu dira, indarrean dagoen plangintza hidrologikoaren helburuekin bat etorrita, 2003ko maiatzaren 28an sinatu eta 2007ko azaroaren 23an zabaldutako esparru hitzarmenetik gauzatzeko dauden konpromisoak.

**QUINTO.-** Que en dicho acuerdo marco, se revisa y recoge, en congruencia con los objetivos de la planificación hidrológica en vigor, los compromisos pendientes de ejecución del Acuerdo marco firmado el 28 de mayo de 2003 y ampliado el 23 de noviembre de 2007.

**SEIGARREN.-** Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren bitartez, eta Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateak, tokiko Servicios de Txingudi- Txingudiko Zerbitzuak, SA merkataritza elkartearen bitartez, parte hartzen dute, nork bere portzentajearekin eta aurrekontu aukeren arabera, Esparru Hitzarmen honetan aintzat hartutako obren finantzazioan.

**SEXTO.-** Que la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, y la Mancomunidad de Servicios de Txingudi, a través de su sociedad mercantil local Servicios de Txingudi-Txingudiko Zerbitzuak, S.A participan, con distintos porcentajes y dentro de sus disponibilidades presupuestarias, en la financiación de las obras incluidas en el Acuerdo Marco.

**ZAZPIGARREN.-** Esparru Hitzarmen horretan jasotako obren artean, honako hauek aurreikusi dira:

- Honda behe ibarra 1. fasea 2.800.000 euro
- Sarjiako saneamendua 500.000 euro
- Honda behe ibarra 2. fasea 2.000.000 euro

**SÉPTIMO.-** Que entre las obras incluidas en el citado acuerdo marco, se contemplan las siguientes:

- Vaguada Honda fase 1 2.800.000 euros
- Saneamiento de Sargia 500.000 euros
- Vaguada Honda fase 2 2.000.000 euros

Zenbateko horiek BEZa barne dute, baina Esparru Akordioan hasiera batean kontuan hartutakoak dira, eta, beraz, azken zenbatekoa eraikuntza proiektuen idazketaren eta dagozkion obren likidazioaren mende egongo da.

Estos importes incluyen el IVA, si bien son los considerados inicialmente en el Acuerdo Marco y por tanto la cifra final estará supeditada a la redacción de los proyectos constructivos y a la liquidación de las obras correspondientes.

**ZORTZIGARREN.-** Esparru Akordio horren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Uraren Euskal Agentziak eta Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateak, Servicios de Txingudi-Txingudiko Zerbitzuak, SA tokiko merkataritza sozietatearen bidez, ehuneko finkoekin parte hartzen dute Esparru Akordioan sartutako obra pakete baten finantzaketan. Aurreikusten da Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru obren zenbateko osoaren % 25 finantzatzea, Honda Ibarra obraren 2. fasea sustatuko, eta Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateak guztizko zenbatekoaren % 50ekin parte hartuko du, eta beste bi obrak sustatuko ditu. Uraren Euskal Agentziak, berriz,

**OCTAVO.-** Que en virtud de dicho acuerdo marco, la Diputación Foral de Gipuzkoa, la Agencia Vasca del Agua, y la Mancomunidad de Servicios de Txingudi, a través de su sociedad mercantil local Servicios de Txingudi-Txingudiko Zerbitzuak, S.A participan con porcentajes fijos en la financiación de un paquete de obras incluidas en el Acuerdo Marco, previéndose que la Diputación Foral de Gipuzkoa financie el 25% del importe conjunto de las tres obras, y promueva la obra Vaguada Honda fase 2. y la Mancomunidad de Servicios de Txingudi participará con un 50% del importe total y promoverá las otras dos obras. La Agencia

gainerako % 25a finantzatuko du.

Vasca del Agua, por su parte, contribuirá con la financiación del 25% restante.

Hiru obra hauek finantzatzeko portzentaje espezifiko hauek ez dira espreski jasotzen esparru akordioan, baina bertan adierazten diren obra guztiekiko portzentajeekin bat datoz.

Estos porcentajes específicos de financiación de cada una de las tres obras no constan expresamente en el texto del acuerdo marco, si bien son los que justifican los porcentajes correspondientes a la totalidad de las obras que se contemplan en el mismo.

**BEDERATZIGARREN.-** Esparru akordioak ezartzen du esku hartze horietako bakoitzaren kontratazioan, finantzaketan eta egikaritzean parte hartuko dutela erakunde sinatzaileek, betiere aldeen aurrekontu baliabideen barruan, eta obren erakunde kontratatzailearen eta obren onuradun diren toki erakundeen edo finantzaketaren eraginpean dauden erakundeen artean horretarako sinatu beharreko unean uneko lankidetza hitzarmenetan zehaztuta.

**NOVENO.-** Que el acuerdo marco establece la participación de los entes firmantes en la contratación, financiación y ejecución de cada una de estas actuaciones, siempre dentro de las disponibilidades presupuestarias de las partes, concretándose en los convenios de colaboración puntuales a suscribir al efecto entre el ente contratante de las obras y los entes locales beneficiados por las mismas o las entidades que resultasen afectadas por su financiación.

**HAMARGARREN.-** Gaur egun, "Sargiako saneamendua" obra amaitua dago, eta "Honda behe ibarra, 1. fasea" obra egiten ari da. Bietarako lankidetza hitzarmen bana sinatu da Uraren Euskal Agentziaren eta Servicios de Txingudi-Txingudiko Zerbitzuak, SAren artean; hau da, bi obra horiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren parte hartzerik gabe finantzatuko dira, eta, beraz, aipatutako esku hartze sorta hori gauzatzeko falta den hirugarren obran bildu behar dira Aldundiaren ekarpen ekonomiko guztiak. "Sargiako saneamendua" obraren likidazioa 459.726,54 euro izan da, BEZa barne, eta egun egikaritzen dagoen "Honda behe ibarra, 1. fasea"ren adjudikazioaren zenbatekoa 2.802.801,92 euro da, BEZa barne.

**DÉCIMO**.- Que a día de hoy, la obra "Saneamiento de Sargia" está finalizada, y la obra "Vaguada Honda fase 1" está en ejecución. Ambas han sido objeto de sendos convenios de colaboración suscritos entre la Agencia Vasca del Agua y Servicios de Txingudi-Txingudiko Zerbitzuak, S.A. Es decir, que esas dos obras van a ser financiadas sin la participación de la Diputación Foral de Gipuzkoa, lo que obliga a concentrar, en la tercera obra que falta por ejecutar del citado paquete de actuaciones, todas las aportaciones económicas de la Diputación. El importe de liquidación de la obra "Saneamiento de Sargia" ha sido de 459.726,54 euros, IVA incluido y el importe de adjudicación de la obra "Vaguada Honda fase 1", actualmente en ejecución, es de 2.802.801,92 euros, IVA incluido.

**HAMAIKAGARREN.-** Hirugarren obra egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak JAIZKIBELGO (HONDARRIBIA) EKIALDEKO MAGALEKO ERREKEN UHOLDEAK PREBENITZEKO PROIEKTUAREN 2. FASEA. 6. ETA 8. KOLEKTOREAK proiektua dauka, Esparru Akordioan "Honda behe ibarra 2. fasea" izena hartzen duena. Proiektu hori Salaberria Ingenieritza SLk idatzi zuen 2020ko apirilean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Obra Hidraulikoen Zerbitzuarentzat, eta Servicios de Txingudi-Txingudiko Zerbitzuak, SAren onespena du.

**UNDÉCIMO**.- Que para llevar a cabo la tercera obra, la Diputación Foral de Gipuzkoa cuenta con el proyecto de PREVENCIÓN DE INUNDACIONES DE LAS REGATAS DE LA LADERA ESTE DE JAIZKIBEL (HONDARRIBIA) FASE 2. COLECTORES 6 Y 8, que en el Acuerdo Marco se denomina "Vaguada Honda fase 2". Este proyecto ha sido redactado por Salaberria Ingenieritza S.L., en abril de 2020, para el Servicio de Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y cuenta con la aprobación de Servicios de Txingudi-Txingudiko Zerbitzuak, S.A.

**HAMABIGARREN.-** Proiektu horren zenbatekoa 1.209.626,86 euro dira, gehi 254.021,64 euro BEZaren kontzeptuan; guztira, 1.463.648,50 euro, 14 hilabetetan gauzatzeko 2021 eta 2022 urteetan zehar.

**HAMAHIRUGARREN.-** Aurreko guztiagatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Servicios de Txingudi-Txingudiko Zerbitzuak, SAk LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzea adostu dute, 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarenak, 47. artikuluan eta hurrengoetan, eta 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoak, 57. artikuluetan diotenarekin bat etorriz. Hitzarmenak ondoko klausula hauek izango ditu:

**DUODÉCIMO**.- Que el importe de este proyecto, asciende a 1.209.626,86 euros, más 254.021,64 euros en concepto de IVA, lo que totaliza 1.463.648,50 euros, y un plazo de ejecución de 14 meses, durante los años 2021 y 2022.

**DECIMOTERCERO**.- Que, por todo lo expuesto, y de conformidad con lo señalado en los artículos 47 y siguientes de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, así como en el artículo 57 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, la Diputación Foral de Gipuzkoa y Servicios de Txingudi-Txingudiko Zerbitzuak, S.A. acuerdan formalizar el presente CONVENIO que se regirá por las siguientes,

## KLAUSULAK

**Lehena.- Hitzarmenaren xedea.**

Hitzarmenaren xedea da Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren bitartez, eta Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitateak, tokiko Servicios de Txingudi- Txingudiko Zerbitzuak, SA merkataritza elkartearen bitartez sinatu beharreko lankidetza baldintzak arautzea, kontrataz gauzatu beharreko aurrekontuekin "JAIZKIBELGO EKIALDEKO MAZELAKO (HONDARRIBIA) ERREKEN UHOLDEAK PREBENITZEKO PROIEKTUAREN 2.FASEA: 6. ETA 8. KOLEKTOREAK" proiektuaren lanak gauzatzeko.

**Bigarrena.- Gauzatu beharreko jarduketak.**

Ondoko klausuletan ezarritakoaren arabera gauzatu beharreko esku hartzeak "JAIZKIBELGO EKIALDEKO MAZELAKO (HONDARRIBIA) ERREKEN UHOLDEAK PREBENITZEKO PROIEKTUAREN 2. FASEA: 6. ETA 8. KOLEKTOREAK" proiektuari dagozkionak dira. Proiektu hori Salaberria Ingenieritza, SLk idatzi zuen 2020ko apirilean Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Obra Hidraulikoen Sailarentzat.

**Hirugarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren betebeharrak.**

Hitzarmen honen arabera, honako betebehar hauek ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak:

## CLÁUSULAS

**Primera.- Objeto del Convenio.**

Es objeto del convenio regular las condiciones de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, y la Mancomunidad de Servicios de Txingudi, a través de su sociedad mercantil local Servicios de Txingudi-Txingudiko Zerbitzuak, S.A., para la financiación y ejecución de las obras de infraestructura hidráulica comprendidas en el proyecto de PREVENCIÓN DE INUNDACIONES DE LAS REGATAS DE LA LADERA ESTE DE JAIZKIBEL (HONDARRIBIA) FASE 2. COLECTORES 6 Y 8.

**Segunda.- Actuaciones a ejecutar.**

Las actuaciones a ejecutar, en los términos establecidos en las cláusulas siguientes, son las correspondientes al proyecto de "PREVENCIÓN DE INUNDACIONES DE LAS REGATAS DE LA LADERA ESTE DE JAIZKIBEL (HONDARRIBIA) FASE 2. COLECTORES 6 Y 8", redactado por Salaberria Ingenieritza, S.L. en abril de 2020 para el Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**Tercera.- Obligaciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa.**

En virtud del presente convenio, la Diputación Foral de Gipuzkoa se obliga a:

a) Lehenengo klausularen xede diren obrak kontratatzeko administrazio izapideak egingo ditu, obrak hasten direnetik jasotzen diren arte, eta, obren zuzendaritza teknikoaren arduraduna ere bera izango da.

a) Llevar a cabo la tramitación administrativa para la contratación de las obras objeto de la cláusula primera, desde su inicio hasta su recepción, siendo responsable, asimismo, de la dirección técnica de las obras.

b) Hitzarmenaren xede den proiektuan jasotako obren kontratazioaren eta zuzendaritza teknikoaren egiazko kostuen % 100 finantzatu eta ordainduko du.

b) Financiar y abonar el 100% de los costes efectivos de la contratación y dirección técnica de las obras incluidas en el citado proyecto objeto del convenio.

Aldundiaren finantzaketa konpromisoaren barruan sartzen dira kontratuaren esleipen prezioa zenbatekoaren % 10 baino gutxiago aldatzea dakarten aldaketak, edo muga ekonomiko hori gainditzen ez duen beste edozein kontratu erabaki hartzea.

Se entienden incluidas dentro del compromiso de financiación de la Diputación, aquellas modificaciones que impliquen una alteración del precio de adjudicación del contrato en cuantía inferior al 10% de su importe, o bien cualquier otra toma de decisión contractual con implicaciones económicas que no supere el citado límite.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren bidez agintzen duen gastua 1.209.626,86 eurokoa da, gehi 254.021,64 euro (% 21eko BEZa), guztira 1.463.648,50 euro.

El gasto correspondiente al importe que compromete la Diputación Foral de Gipuzkoa a través del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas asciende a 1.209.626,86 euros más 254.021,64 euros (IVA 21%), total 1.463.648,50 euros.

Aipatu obrak 14 hilabeteko iraupena du eta 2021 eta 2022 urteetan zehar gauzatuko da. Ondorioz, gastu hori honela banakatzen da: bederatziehun mila euroko (900.000,00 €) konpromiso kreditua 2021erako, 5.0320.200.662.00.02 aurrekontu sailaren kargura, eta bostehun eta hirurogeita hiru mila seiehun eta berrogeita zortzi euro eta berrogeita hamar zentimoko (563.648,50 €) konpromiso kreditua 2022rako, 5.0320.200.662.00.02 aurrekontu sailaren kargura.

Dichas obras tendrán una duración de 14 meses y se ejecutarán entre los años 2021 y 2022. En consecuencia, se prevén créditos de compromiso para el año 2021 por novecientos mil euros (900.000,00 €) con cargo a la partida presupuestaria 5.0320.200.662.00.02 y créditos de compromiso para el ejercicio 2022 de quinientos sesenta y tres mil seiscientos cuarenta y ocho euros con cincuenta céntimos (563.648,50 €) con cargo a la partida presupuestaria 5.0320.200.662.00.02.

Hitzarmen honen xedapenetatik eratorritako betebehar ekonomikoen edukia hitzarmen hau betetzeko behar diren kredituen zuzkiduraren eta dagozkion gastuen baimenaren mende geratuko da, dagokion organo kontu hartzailearen nahitaezko fiskalizazioa egin ondoren.

El contenido obligacional económico derivado de las estipulaciones del presente convenio, queda condicionado a la dotación de los créditos precisos para su cumplimiento y a la autorización de los gastos correspondientes previa la preceptiva fiscalización del órgano interventor respectivo.

Ondorio horietarako, hitzarmena partzialki edo osorik burututzat joko da, kasuan kasuko gastuak baimentzen diren heinean.

A estos efectos el convenio se considerará perfeccionado bien parcialmente, o en su totalidad, en la medida en que se vaya produciendo la autorización de los gastos correspondientes.

c) Dagokion eraikuntza proiektua aurkeztuko du.

c) Aportar el Proyecto constructivo correspondiente.

**Laugarrena.- Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, SAren betebeharrak.**

Bestalde, honako betebehar hauek ditu SERVICIOS DE TXINGUDI - TXINGUDIKO ZERBITZUAK, SAk:

a) Obrak gauzatzeko aldi baterako edo behin betiko behar diren lursailak bere kargura eskuratuko ditu.

b) Obrak kontratatzeko aurretiko eta beharrezko lizentziak, baimenak eta gainerako administrazio izapideak lortuko ditu.

c) Obrak ustiapen egoeran jarriko ditu beharreko zerbitzuak emateko, behin jaso ondoren, eta behar bezala kontserbatuko ditu, horretarako behar diren aurrekontu aurreikuspenak eta gainerako neurriak hartzeko konpromisoa hartuz.

**Cuarta.- Obligaciones de Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, S.A.**

Por su parte, SERVICIOS DE TXINGUDI - TXINGUDIKO ZERBITZUAK, S.A. se obliga a:

a) Obtener a su cargo, los terrenos precisos, temporal o definitivamente, para la ejecución de las obras.

b) Obtener las licencias, autorizaciones, y los demás trámites administrativos previos y necesarios para la contratación de las obras.

c) Poner las obras en explotación para la prestación del servicio a que se destinan, una vez recepcionadas, y conservarlas debidamente, comprometiéndose a realizar las previsiones presupuestarias y a adoptar las demás medidas precisas para tal fin.

**Bosgarrena.- Obrak kontratatu, zuzendu eta ikuskatzeari buruz.**

1.- Gipuzkoako Foru Aldundia. arduratuko da obrak kontratatu, zuzendu eta teknikoki ikuskatzeaz, eta eginkizun horiek ordenamendu juridikoak baimendutako edozein erakunderen bitartez kudeatu ahal izango ditu.

2.- Seigarren klausulan aurreikusitako jarraipenerako batzorde mistoko ordezkarien bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundiak puntualki informatuko dio Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, SAri eta aurkeztu egingo dio hitzarmen honen betetzeak eragiten dituen tramite administratibo guztien garapenari eta egikaritzeari buruzko dokumentazioaren kopia.

3.- Obrak onartzeko ekitaldian Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, SAko teknikari bat izango da, emandako laguntzaren xede egokia fiskalizatzeko helburuarekin.

4.- Obrak jaso ondoren, horiek jomuga duten zerbitzua emateko ustiatzen jartzeko betebeharra du Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, SAk, bai eta horiek behar bezala zaintzekoa ere, eta horretarako beharrezkoak diren aurrekontu-aurreikuspenak egiteko eta beharrezkoak diren gainerako neurriak hartzeko konpromisoa hartzen du.

**Quinta.- Sobre la contratación, dirección, inspección y explotación de las obras.**

1.- Será responsable de la contratación, dirección e inspección técnica de la ejecución de las obras la Diputación Foral de Gipuzkoa, que podrá gestionar tales atribuciones a través de cualquiera de las formas autorizadas por el ordenamiento jurídico.

2.- A través de sus representantes en la comisión mixta de seguimiento prevista en la cláusula sexta, la Diputación Foral de Gipuzkoa deberá informar puntualmente a Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, S.A y aportar a la misma copia de la documentación referente al desarrollo y ejecución de todos y cada uno de los trámites administrativos que ocasione el cumplimiento del presente convenio.

3.- Al acto de recepción de las obras asistirá un técnico de la Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, S.A con el fin de fiscalizar el adecuado destino del auxilio prestado.

4.- Tras la recepción de las obras, Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, S.A. se obliga a ponerlas en explotación para la prestación del servicio a que se destinan, y a conservarlas debidamente, comprometiéndose a realizar las previsiones presupuestarias y a adoptar las demás medidas precisas para tal fin.

**Seigarrena.- Jardunen jarraipenerako batzordea.**

1.- Hitzarmen honen jarraipenerako batzorde bat eratuko da. Batzorde hori lau ordezkarik osatuko dute. Bi Gipuzkoako Foru Aldundikoak izango dira eta beste bi Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, SAkoak. Hitzarmena sinatzen duen alde bakoitzak izendatuko ditu bere ordezkariak, honako egínkizun hauetarako:

a) Hitzarmen honetan aurreikusitako obrak behar bezala burutzen ari direla egiaztatzeko jarraipena egitea, eta, horretarako, bi erakundeek bata bestearen informazioa izan dezaten eta elkarrenganako konpromisoak behar bezala bete ditzaten irizpide eta moduak ezartzea.

b) Lan bakoitzerako behar diren izapideak agudo egiteko oztopoak kentzen saiatzea.

c) Hitzarmen honen gai diren jardunak burutuko direla bermatzeko behar diren txostenak egin eta neurriak proposatzea, batez ere, urtekoak egokitu beharreko kasuetan eta seigarren klausulan jasotakoetan.

d) Hitzarmenak ekar ditzakeen interpretatzeko eta burutzeko arazoei irtenbideak ematen saiatzea.

2.- Hitzarmena indarrean dagoen bitartean eta edozein aldetako ordezkariak hala eskatzen badu, batzordea jardunak ondo joan daitezen behar den guztietan elkartuko da. Bilkura egiteko kide guztiek bertan egon beharko dute eta erabakiak ere aho batez hartu beharko dira.

3.- Jarraipen Batzordearentzat espresuki jasotzen ez dituen gaietan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren II. kapituluaren hirugarren atalean arautzen den kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da.

**Zazpigarrena.- Aldaketak.**

Hitzarmen honen edozein aldaketa jakinera eman beharko da eta parte hartzaile guztien aurretiazko

**Sexta.- Comisión de seguimiento de las actuaciones.**

1.- Se constituirá una comisión de seguimiento del presente convenio compuesta por cuatro representantes, dos de la Diputación Foral de Gipuzkoa y otros dos de Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzuak, S.A., que serán designados, respectivamente, por las partes firmantes del presente convenio, para el desempeño de las siguientes funciones:

a) Llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las actuaciones previstas en el presente convenio, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.

b) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.

c) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente convenio, especialmente en los supuestos de reajuste de anualidades y en los recogidos en la cláusula séptima.

d) Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear el convenio.

2.- Durante la vigencia del convenio y a propuesta del representante de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones. Los quórums de reunión y de adopción de acuerdos serán los de unanimidad de sus miembros.

3.- En lo no previsto expresamente para la comisión de seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en la Sección 3ª del Capítulo II del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

**Séptima.- Modificaciones.**

Cualquier modificación del presente convenio deberá comunicarse y contar con el visto bueno

oniritzia jaso beharko du nahitaez, bakoitzaren organo eskudunak onartuta.

previo de las partes intervinientes y ser aprobada por los órganos correspondientes de las mismas.

**Zortzigarrena.- Indarraldia, iraungitzea eta ez-betetzeak.**

**Octava.- Periodo de vigencia, extinción e incumplimientos.**

Hitzarmenak izenpetzen denetik aurrera izango du indarra eta behartasuna, parte hartzen duten alderdientzat, eta iraupena lau urtekoa izango da. Hitzarmenaren indarraldia amaitu aurretik, sinatu duten partaideek lau urtez luzatzeko erabakia hartu dezakete, ahobatez, edo objektua gauzatzeko beharrezkoak diren ekintzen kontratazioaren likidazioa egin arte.

El convenio surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma, estableciéndose una duración de cuatro años. En cualquier momento antes de la finalización del plazo de vigencia, los firmantes del convenio podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o hasta la liquidación de la contratación de las actuaciones necesarias para su ejecución.

Bere xedea osatzen duen ekintzak betetzen direnean iraungiko da hitzarmena, edo Sektore Publikoaren Araubide Juridikoko 40/2015 legeak, urriak 1ekoak, bere 51 artikuluan jasotzen dituen amaitzeko zioak ematen direnean.

El convenio se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto o por incurrir en causa de resolución del artículo 51 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Alderdietako batek bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, beste alderdien esku egongo da haiek zorrotz betearaztea edo hitzarmena hautsi dadin eskatzea, alderdietako edozeinek hala eskatuta, idatziz eta modu ziurtatuan, hilabeteko gutxieneko epean. Hitzarmena hausten bada, alderdiek erabakiko dute zer baldintzatan amaituko den, eta hasita dauden lanak nola ordainduko diren, baita horiek egin ondoren -—egingo balira – nola emango diren ere.

En caso de incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a las otras, a exigir su estricto cumplimiento, o solicitar la resolución del convenio, previa denuncia por cualquiera de las partes mediante comunicación escrita fehaciente con un plazo de antelación de al menos un mes. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución y, en su caso, para la posterior entrega de las mismas.

Hitzarmena ez betetze arrazoi batengatik hausten bada, sortutako gastuen ordainketa ekarriko du kalte ordain gisa.

La resolución del convenio por incumplimiento, dará lugar a la indemnización de los gastos ocasionados.

**Bederatzigarrena.- Hitzarmenaren araubidea eta interpretazioa.**

**Novena.- Régimen e interpretación del convenio.**

1.- Hitzarmen hau administrazio arlokoa da, eta, beraz, interpretatu eta garatzeko administrazio publikoen arteko lankidetza-hitzarmenei aplikatu beharreko administrazioko ordenamendu juridikoa bete beharko da.

1.- El convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas.

2.- Hitzarmenak edo hori betearazteak sorrarazitako interpretazio-arazoak jarraipenerako batzordeak konponduko ditu aurreko klausulan esandakoari jarraikiz, eta, hala ezin bada, 40/2015 legea bete beharko da.

2.- La resolución de los problemas de interpretación que puedan plantear el presente convenio o su ejecución serán resueltos por la comisión de seguimiento según lo referido en la cláusula anterior; si no fuera posible, se estará a lo dispuesto en la citada Ley 40/2015, de 1 de octubre.

Eta esandako guztiarekin bat datozela agertzeko, bi alderdiek izenpetu egiten dute, bi aletan, esandako egunean eta tokian.

Y en prueba de conformidad con lo establecido lo firman los comparecientes en duplicado ejemplar en el lugar y fecha señalados.

**INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO FORU DIPUTATUA, /**
**EL DIPUTADO FORAL DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS,**

**D. José Ignacio Asensio Bazterra jauna**

**SERVICIOS DE TXINGUDI-TXINGUDIKO ZERBITZUAK, SA-KO LEHENDAKARIA, / EL PRESIDENTE DE SERVICIOS DE TXINGUDI-TXINGUDIKO ZERBITZUAK, S.A.**

**D. José Antonio Santano Clavero jauna**

**SERVICIOS DE TXINGUDI-TXINGUDIKO ZERBITZUAK, SA-KO LEHENDAKARIORDEA, / EL VICEPRESIDENTE DE SERVICIOS DE TXINGUDI-TXINGUDIKO ZERBITZUAK, S.A.**

**D. Txomin Sagarzazu Ancisar jauna**